

ERIO ZITAL!

Negar-errian bizi gerala, esan oi dugu, ta orrelaxe da. Noiznai ta nun-nai bustitzen dira malkoz gure begiak; areago biotzak. Ezbear beltzak eta erio zitalak estutzen gaitu ezker-eskubi. Alai bizi bear gendukela esaten zaigu, baiña ez izan errez, alajaiña!

Euskal arloan ari geranok ba-dugu zergatik illeta joa. Oraintsu, illabete batzuk dirala, M. Zarate ta J. Zaitegi gugandik alde-egiñak ziran, euskal barrutian langille arnas aundiko biak. Biotz-miñez agur egin genien biai.

Eta oraintxe berton, KARMEL irarkolan dugula, bertsolari ospetsu baten, zuberotar Etxahun'en il-berria datorkigu. Tamal aundia noski! Izan ere bertsolari au, Zubero'n ez-ezik, Euskalerrri osoan ezaguna genduan, emendik ere sarri ibillia dugulako. Nik neuk maiz entzun izan diot, emen eta an, bertso-saio bikain-bikaiñak egiten. Xalbador eta Mattin'en laguna zan bertsolaritzan.

Zuberoa'ko Iruri'n jaio zan Pierre Bordazarre 1908'ko maiatzaren 28'an. Santa Grazi'ko alaba batekin ezkondurik, bere sortetxe «Etxahun» baserrian eman izan du bizitza osoa. Urrillaren 1'an il zan Pabe'ko ospitalean gaitz oker batek eratsita.

Aurtengo Olerti Egunean ginean J. Zaitegi'ri omenaldi eder bat egiteko, eta egingo diogu, baiña bera omenaldira orduko joan zitzaigun Jainkoaren galtzarrera. Berdin gertatu da Bordazarre'kin ere, datorren urtarrillean ziran angoak Iruri errian Etxahun omenduteko, eta bere erritarrak erakutsi nai izan zien esker onezko goratzarre eguna ikusi gabe joan zaio.

Eta udazkenez alde egin digun txori kantariari agur egiteko, urriaren 3'an, illetak ospatu ziran Iruri'n, asteazkenez; jendetza gaitza zailizan, erri xeak, bertsolariak, euskal idazleak, euskaltzaiñak, mundu guztiak parte arturik; bederatzi apaiz ziran meza ematen aldarean, eta gorpu illa aldare barrenean lore-koroi ederrez apainduta; bi neskatxek «Ximena» pastoraleko kanta batzuk abestu zituzten meza bitartean, «Agur Xuberoa» ta bertsolari-talde baten bertsoz, gartsu esanez, elizkizuna amaiturik. Ondoren, itzaldiak eta lur-ematea. Dena obeto eziñik. Goian bego Etxahun!

Etxahun bertsolari bezala baiño ere ezagunago genuen Pastoral-egille bezala. Zubero-aldean txit ezagunak eta ospetsuak diran pastoralgintzan ari izan zan gogotsu: auetariko bederatzi utzi dizkigu. Pierre Topet «Etxahun» eta Pierre Bordazarre ez dira bat, bi baizik, naiz-ta biak jaiotetxetiko abizena eraman.

«Etxahun» bertsolari trajikoari buruz egin zuen gure Etxahun'ek bere lenengo pasterala; ez zuen onek arekin zer-ikusirik, ala ere atsegin izan zitzaion poeta jatorraren bizi-xeaztasunez eta abar, lan aipagarri ori burutzea. Gero etorri ziran «Matalaz» (1955), «Berterretxe» (1956), «Iruriko kontea» (1960), «Santxo Azkarra» (1965), «Txikito Kanbo» (1967); «Pette Beretter», «Ximena» ta «Iparragirre» ditu azken ordukoak.

Beraz, etzan edozer gauza, Zuberoak eta Euskalherri osoak maitemaitate zuen gizaseme erraldoia baizik. Gaur irakurri dudanez, artista mitiko bat galdu dugula idazten dute izparringietan. Zuberoa Erdi-Aroko erri bat dugu oraindik. Eta «herri horren semea genuen Etxahun. Euskal Herri zaharraren lekuko. Ile zuriko, gizon haundi hau, begiak itxirik eta ezpainak biurri bildurik, kantari hasten zitzaigunean, Erdi Aroko artista erdi-mitiko baten aurrean geundela iruditzen zitzaigun».

Gaztetatik erakutsi oi da geienek gerora, urteak joan urteak etorri, nor zer izango dan. Etxahun'i eder zitzaion mutikotik euskal kulturak

ditun baserri-gaiak oro: abots ederreko zanez, kantatzen ikasi zuen, txirula jotzen, kantak antolatzen. Ez dakit jakingo duzun, baiña «Agur Xuberoa», gaur bazter guztietan kantatzen dena, berea du; baita «Goizian argi hastian», «Sorlekura itzultzia», ta abar.

Belarri ona zuen, baiña ez zekien musikarik, ezta ikasteko gogorik ere; berez moldatzen zan ederki, ez zuen teoririk bear, oituraz egiñarekin naikoa zuen. Eundaka kantu dauzka berak, doiñu ta letra, bere-bereak.

Eta nik diot: «Onako gizonak (eta emakumeak) bear genituke ugari, gaur batez ere». «Euskera, jaldi adi plazara» garraxi egiteko, batez ere.

A. O.